

Atenastar gizartea : antolaketa eta klase sozialak



5. dokumentua: Gizartearen antolaketa: klase sozialak.

V. mendean K.a., Atenas polisean 300 000 biztanle inguru izango zituela pentsatzen da. Garai hartan, jatorria, sexua edo adinaren arabera klase sozial ezberdinak baziren:

Hiritarrak Atenasko aita eta amen semeak ziren, eskubide guztiak zituztenak: biltzarretan eta polisaren gobernuan parte har zezaketen, lurra ukan zituzketen...

Beste herritar gehienak

eskubiderik gabeko herritar libreak ziren. Alde batetik, eskubiderik gabeko atenastar zeuden: hiritarren emazteek, alabek eta hogeitaz gutxiago zituzten semeek ez zuten politikan parte hartzerik. Bestetik, atzerritarak ziren, batzuk libreak (metekoak) eta beste batzuk esklaboak.

Emakumeak, 16 bat urterekin, ezkontzen ziren beren gurasoen aukeratuak gizonarekin. Seme-alabak zaindu eta etxeko lanak egiten zituzten, zenbaitetan esklaboak lagunduta.

Metekoak artisautza eta merkataritzan aritzen ziren atzerritarak ziren, eta zergak ordaintzera behartuta zeuden. **Esklaboak** gerrako presoak edo esklaboen seme-alabak ziren. Polisaren, herritarren edo metekoen jabetzakoak izan zitezkeen. Ez zeukaten eskubiderik eta salduak edo beste zerbaiten truke aldatuak izan zitezkeen.

